



## ■ KARABELEKO

### Baratzeterapiaz gaur, jardunaldia

Buruko osasun arazoak dituzten pertsonen gizarteratzea eta laneratzeko baratzeterapiaren onurez ariko dira gaur Karabelekon, Jakoba Errekondo eta Mark Olomi adituak, 09:00etatik 13:00etara, eta beste proiektu batzuk ezagutzeko aukera ere izango da. Luis Intxauspe alkateak ere hartuko du parte. ||

## ■ INAUTERIAK

# Kolore alaiak, zerrauts gris bihurtuta

Gaur bukatuko dira Inauteriak, sardina ehorztearekin batera. Ondo pasatzeko aukerarik ez da falta izan hala ere. Bihar balorazio bilera egingo da, 19:00etan Biterin.

EGURALDI kaxkarrak ez ditu tristetu hernaniarrak, eta zeruko grisari lurreko kolore argiekin egin diote aurre, Inauteri hauetan ere. Atzoan, euriak tregoa ematen zuenetan, maxkuri zaparradek blaitzen zituzten bizkarrak, Axeri dantzan edota Erraldoi eta Buruhaundietan.

Gaur, ordea, suaren txinpartak jango ditu azken koloreak, sardinaren ehorzketan; 18:30etan abiatuko da hileta martxa, Plazatik.

### Balorazio bilera, bihar

Gaurkoan Inauteriak bukatuta, azkar jarri da zita balorazioa egiteko. Kultur etxetik jakinarazi dute bihar bertan, 19:00etan egingo dela bilera ireki hori, Biterin. Nahi duenak hartu dezake parte. ||



Bizkarrak berotuta bukatzeko beldurrik ez zuten izan atzo, Axeri dantzan parte hartu zutenek.



Haur jolasetan ere, lan ederra ematen du harria altxatzeak!



Zerua ateri, maxkuriak dantzari!

## ■ SORTU

### Torturaren aurka, elkarretaratzea

Hernaniko Sortuk elkarretaratzea deitu du gaur, Torturaren Aurkako Egunean, 19:30etan Plaza Berrin, Euskal Memoriaren arabera Hernanin izandako 131 kasuak gogoratzeko. ||

## ■ UDALA

### Bertso Eskolari omenaldia, etzi

Udalak jakinarazi du omenaldia egingo diela Hernaniko bertso eskolako hiru hamarkada luzetako ibilbidearen parte izan diren sortzaile eta bertso-larieri, «herriaren izenean». Ekitaldia ostegunean, hilaren 15ean izango da, 18:30etan udaletxeko areto nagusian. ||

## ■ GIBELALDE

### Bazkideek gaur, azken eguna

Bazkide berriak eta bazkideza berritzeko kanpainarekin gaur bukatuko du Lizeagako auzoko Gibelalde elkarteak. Larramendi 11ko lokaletik pasa daiteke, 19:00etatik 20:00etara. ||

## ■ ZILEGI ESKOLA

### Baratzea balkoian nola jarri, Biterin

Hil honen 19an baratzea balkoian nola jarri ikasteko aukera izango da loritz Goizueta astigartarrarekin, AEK-k antolatutako Zilegi Eskolen barruan. Saioa teoriko-praktikoa izango da, eta aukera dago 09:30etara edo 18:30etara joateko. Debaldekoa da, baina izena eman behar da: 663 04 33 14 / [zilegieskola@aek.eus](mailto:zilegieskola@aek.eus). ||

## ■ MARTXOAK 8

# Asanblada irekia gaur, greba feministaz

Euskal Herriko Mugimendu Feministak 'Emakumeok\* Planto' aldarrikapenarekin greba deitu du Martxoaren 8rako. Gaur asanblada informatiboa egingo da, 19:00etan Biterin.

«MENPEAN hartzen eta zapaltzen gaituen sistema kapitalista, arrazista eta heteropatriarkala salatzen», bat egin du Euskal Herriko Mugimendu

Feministak, Martxoaren 8rako egin den Emakumeok\* Planto aldarrikapenarekin, eta Hernaniko Koordinadora Feministak honen inguruko informa-

zioa emateko asanblada deitu du gaur, 19:00etan Biterin.

«Emakumeek, lesbianek, transek, migratutakoek, gure aniztasun osoan planto egin-

go dugu», azaldu dute. «Eta planto egingo bagenu? Eta egiten dugun guztia egingo ez bagenu? Aurtengo Martxoaren 8an ikusiko dugu». ||

Fisioterapeutak:  
Roberto Dos Santos  
Jon Aramendi  
Miren Eceiza  
Ane Barrante  
Asier Piera  
Jone Agirre  
Goar Lopetegui  
Ander Etxeberría

**KIMERA**  
Fisioterapia - Osteopatia

[www.kimerafisioterapia.com](http://www.kimerafisioterapia.com)

Hitzordua hartzeko  
orain ere whatsapp zerbitzua  
9:15 - 18:00



638421060

Administraria: Yesica



☎ **TAXIAK:** 943 550093 | **UDALITZAINGOA:** 943 248900 | **DYA:** 943 464622 | **AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 | **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 943 203020 | **JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK:** 943 331103  
✚ / **Egunez:** **A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** / **Gauetz:** **Castilla** Urbieta, 7 (Hernani) **943 552941**

**EGURALDIA** **GAUR** Goizaldean hotz handia egingo du eta izotza botako du. Gero lainotu eta euritarra joko du. Arratsaldean elur maila 1.000 metroa igoko da. **Min.1° / Max.11°**  
**BIHAR** Zerua lainotu egongo da eta euria samri egingo du. hegoaldeko haizea ibiliko da, eta tenperaturak gora egingo du, nabarmen. **Min.6° / Max.13°** (euskaime)

## HERNANI'N MUSIK

# 'Morau' eta Mugaldekoak entzuteko, sarrerak gaurtik

Otsailaren 23an eskainiko dute kontzertua, gaueko 22:00etan Milagrosan; eta sarrerak Biterin jarriko dituzte salgai gaur; 7,5 euro dira.

DISKO bana aurkeztuko dute otsailaren 23an, Milagrosan, Andoni Tolosa *Morau* musikari hernaniarrak, eta Mugaldekoak taldeak. Gaueko 22:00etan

izango da, eta sarrerak, gaur bertan jarriko dituzte salgai, Biterin, 7,5 euroan.

Bere zazpigarren diskoa du *Morauk, Egunsentia* alperren-

tzat izenburupean kaleratu duena; bere aurreneko lan luzea, bakarka. Oso gai intimoa jorratu ditu, Hernaniko hainbat txokotan kokatuta. ||

## LITERATURA

# Ipuin kontaketa eta solasaldiak kultur etxean, gaur eta bihar

Bi kontaketa saio eskainiko ditu Pello Añorgak gaur, 17:30etan eta 18:00etan Biterin. 19:30etan, berriz, euskerazko literatur solasaldia izango da, 'Babilonia' liburuz; eta gaztelaniazkoa bihar.

LITERATURAREKIN hiru zita izango dira Hernanin, gaur eta bihar. Eta hasteko, Pello Añorga idazle eta ipuin kontalaria etorriko da Biterira: bi ipuin kontaketa eskainiko ditu gaur, Biterin; 17:30etan 3-

4 urtekoentzat, eta 18:00etan 5-7koentzat.

Gaur bertan izango da, baita ere, aurreneko literatur solasaldia; 19:30etan, liburutegian. Euskeraz izango da, eta Juan Mari Irigoien *Babilonia* liburu-

ruaz ariko dira, Ane Mayozen gidatuta. Gaztelaniazko solasaldia, berriz, bihar izango da, 19:30etan liburutegian hori ere. Amaia Garciak gidatuta, Petros Markarisen *Liquidación final* liburuari buruz. ||

## PSE-EE PRENTSA OHARRA

# «Azkenean bai, izango da partida bat, Kaxkoko leihoak aldatzeko»

Hernaniko PSE-EEK nabarmendu du, EH Bilduren gobernuaren konpromisoa lortu duela, leihoak aldatzeko dirulaguntzak berrituko emateko.

«HERNANIKO PSE-EETik, lortu dugu EH Bilduren gobernuaren konpromisoa, aurreneko dirulaguntzak emateko, Kaxkoko etxebizitzetako leihoak aldatzeko. Hala argitaratu da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean», azaldu du Ricardo Crespok, Hernaniko alderdi sozialistaren bozeramaileak: «azkenean bai, eskainiko da dirulaguntza partida bat aurreneko, Kaxkoko leihoak aldatzeko».

Crespok nabarmendu du, PSE-EEK proposatu zuela dirulaguntza partida hori, orain dela bi urte, 2016ko aurrekontuen proiektuaren negoziaketetan: «orduan, EH Bildurekin negoziatu ondoren, 60.000 euroko partida bat lortu genuen, Kaxkoko leihoak aldatu eta

irisgarritasunerako hobekuntzak, igogailuak adibidez, dirulaguntzeko. Hala ere, 80.000 euroko partida eskatu genuen guk», azaldu dute.

2018ko udal aurrekontuen harira, berriz, Crespok gaitzetsi egin zuen udal gobernuaren portaera, bi ekimenak ez zirelako «behar bezala gauzatu», eta «hiltzen utzi» zituelako.

«Iaz, Udalak soilik 10.000 euro bideratu zituen leihoak aldatzera, baina ez zen modu egokian iragarri, eta horrek eragin zuen, eskaera kopurua oso txikia izatea. Horregatik, aurreneko Kaxkoko bizilagunak animatu nahi ditugu, Udalera gerturatu, dirulaguntza horien galdetu eta eskaera egitera», adierazi du Crespok.

«Leihoak aldatzea ez da nahikoa, bizi kalitatearen beharokada arintzeko»

Hernaniko PSE-EEK azaldu du, bi helbururekin proposatu zituela dirulaguntzak: «energia kontsumoa gutxitu eta etxetako baldintza termikoak hobetzea; eta txotx garaiko zaratara arazoak gutxitu eta elkarbizitza arintzea. Hala ere, badakigu leihoak aldatzea ez dela nahikoa, bizi kalitatearen beharokada hori arintzeko. Udalak neurriak hartu behar ditu, hernaniarren atsedenerako eskubidea bermatzeko».

Azkenik, udal gobernuari eskatu dio, lehenbailehen argitaratu dezan, irisgarritasun arazoak konpontzeko dirulaguntzen deialdia ere. ||

## Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:00ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

† **FELI ECHEGOYEN LARRARTE**  
ANDREA  
Atzo hil zen, 74 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta

- Goian Bego -

Ahizpak: Faustina eta Mari Carmen; ezkon anai-arrebak; ilobak, iloba txikiak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitetzela **BIHAR, ASTEAZKENA**, arratsaldeko **SEIETAN, SAN JOAN BATAIATZAILEAREN** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2018ko otsailaren 13an

Helbidea: Urbieta kalea  
OHARRAK: Gorputza Hernaniko ORBEGOZO EHORZKETA TANATORIOAN egongo da bihar, asteazkena, eguerdiko 12:00ak arte.

**JEXUX ARRIZABALAGA ZABALA**  
'ALTZEA'

Hainbat tokitan elkarrekin; Ereñozu, Goizuta, Andoain, Zaldibi, Añorga, Legazpi, Zumarra, Azpeiti, Beasain, Oroz Betelu, Garaioa, Getafe, Numancia de la Sagra...

**LAISTER ARTE LAGUN**

**Inaxio Ansa, Joxeba Ansa, Igor Miner, Mikel Oskoz, Xabier Santa Kruz, Mikel Artola eta Joxan Aranburu.**

Hernanin, 2018ko otsailaren 13an

**JEXUX ARRIZABALAGA ZABALA**  
'ALTZEA'

Lokaleko zure koadrila, gurekin izango zera afari guztietan.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitetzela **GAUR ASTEARTEA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, SAN JOAN BATAIATZAILEA** parroki elizan egingo den hiletara.

Hernanin, 2018ko otsailaren 13an

**JEXUX ARRIZABALAGA ZABALA**

- Goian Bego -

Beti izango zaitugu gogoan. Eskerrik asko, guztiagatik

**BAR URUMEA (Zinkuñaga)**

Hernanin, 2018ko otsailaren 13an

**JEXUX ARRIZABALAGA ZABALA**  
'ALTZEA'

Aurreneko gurekin izango haiz urteroko bazkarian

**DON KARMELOREKIN IKASITAKO LAGUNAK**

Hernanin, 2018ko otsailaren 13an

## IRAGARKI MERKEAK

Garaje itxia salgai Garcia Goldarazen. 15.50 m2 ditu, argia eta ura ere bai.  
Deitu: 943 55 30 54 / 670 368 583

ETXeko KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)